

Jose Luis Aperribai-Parrokoa:

«Partaidetza gehiago izango duen eliza nahi dugu»/4-5



'Poxpolo, Mokolo eta konpainia' pailazoak gaur Biterin

GAUR arratsaldean pailazo ikuskizuna izango da Biterin, Poxpolo, Mokolo eta konpainiaren eskutik. Ikuskizunean saiatuko dira haurren irrifarra eta algara lortzen. Gai pedagogikoak eta didaktikoak ere lantzen dira ikuskizunean: kultur aniztasuna, hizkuntzak, irudi geometrikoak, beste batzuen artean. Pailazoekin batean beste hainbat pertsonaje ere izango dira. Arratsaldeko 17:30etan, Biterin. ||

Yone Boutique taldeak irabazi egin zuen atzo

YONE Boutique areto futbol taldea garaipenarekin hasi du denboraldia. Azpimarratzekoa da taldeak kategoría berrian hasi duela denboraldia, 2garren mailan, iaz igotzea lortu baitzuen. Markagailuan atzetik hasi baziren ere atsedenaldirako bana enpatatu zuten. Pixkanaka taldeak golak sartzea lortu zuen eta Denak Bat taldea aukerarik gabe utzi zuen./6

❖ EUSKO ALKARTASUNA Larunbatean kajeroa erre izana gaitzetsi du EAK

Larunbat goizaldean Urbieta kalean kajeroa erre zuten. Eusko Alkartasunak bere gaitzespena adierazi du prentsa ohar baten bidez./2

❖ IGANDEKO SARGORIA Aritz Sound System gaur Tilosetan

Musika entzuteko aukera izango da gaur arratsaldean Tilosetan. Izan ere, Igandeko Sargoriak izenburuko saioekin jarraituz, Aritz Sound System izango da musika jartzen. Musika beltza entzun ahal izango da: reggae-a, rap-a, soul-a, funk-a, afro-brasilardar doinuak, beste batzuen artean. Arratsaldeko 18:00etan hasita. ||

❖ PRESOK

Futbito txapelketa atzo Zubipen

Amnistiaren aldeko futbito txapelketa izan zen atzo Zubipen. Eguraldia lagun jende dexente animatu zen. Txapelketa *Astoan bila* taldeak irabazi zuen. /6

GAUR KRONIKAN

Juan Mari Arzak
Txantxangorri elkartearen /2

KIROLAK/6

Marisol Yabenen
argazki ren erakusketa /7

Agenda/7

Eskelak/7

Ikasleak Plenoan /8



120 lagun inguru bildu ziren atzo mugarriz mugarri ibiltzeko

MENDIRIZ Mendik antolatuta, Mugarri Eguna izan zen atzokoan. Eguraldi bikaina lagun jende dexente animatu zen ibilaldia egitera, gehienak haur, gaztetxo eta gurasoak. Haurren ibilbidea Errenteriko Listorretatik hasi zen eta Susperregi eta Urdaburu Txikin barrena Ugaldetxon bukatu zuten. Helduek ibilbide luzeagoa egin zuten, hasi Antxistatik eta Adarraren atzeko bidean barrena Ugaldetxoraino. Ibilbidean zehar Elduain, Urnieta eta Hernaniko mugak ikusi ahal izan zituzten. ||

AINHOA BLANCO ARAMBURU

ABOKATUA
Zerbitzu juridikoak
943 33 71 71
www.hernani.biz
Kale Nagusia, 33. entlo.

Mugimendua jostailu

Mugimendua adierazgarria lanlegia haurrentzat

Talde eraketa
Banakako arreta

SASOTIKO
Mareituts, 4 behea
Tel.: 943 33 11 83

gimets markapintza

...gimets markapintza gurea da...
...gimets markapintza gurea da...
...gimets markapintza gurea da...

gimets markapintza

gimets markapintza

Kajero bati su eman zioten larunbat goizalean

Urbieta kalean dagoen Banco de Vasconiako kajeroari eman zioten su.



URBIETA kalean, Banco de Vasconia banketxeke kajero bati eman zioten su larunbatean, goizeko 04:50ak aldera. Ondorioz kajeroa erre eta suhiltzaileak joan behar izan zuten sua itzaltzera. Ez da bestelako kalte materialik izan. ||

Eusko Alkartasunak banketxearen aurkako eraso salatatu du

EUSKO Alkartasunak larunbat gauean Banco de Vasconia-ren aurka izandako eraso salatatu du, prentsa ohar baten bidez. Dioenez, «herri honi proiektuak inposatu nahi dizkiotenek, berriz ere, indarkeria erabili dute», eta adierazi du, «herri honetan inposaketak soberan» daudela. EAK «garbi utzi nahi du Ezker Erradikalak duen proiektu totalitarioa ez dela garaile aterako», eta bukatzeko aipatu du, «Euskal Herriak eta Hernanik bere etorkizuna giza eskubideetan eta askatasunean oinarritu behar dituztela». ||



Juan Mari Arzak Txantxangorri elkartean

OSTIRAL gauean Txantxangorri elkartean 25garren sagardo txapelketa izan zen. Ospakizun berezia zenez Juan Mari Arzak gonbidatu zuten. Zinemaldiko izar guztiak utzi eta Hernani aldera etorri zen eta Txantxangorri sukaldatutako bakailua probatu zuen. Sagardo txapelketan aurrena Astiazaran izan zen; bigarrena, Bereziartua; hirugarrena, Herrerua; eta laugarrena, Barkaiztegi. 25 urte hauetako erregularitate saria ere eman zuten: aurrenekoa, Herrerua izan da; bigarrena, Barkaiztegi; hirugarrena; Rufino eta laugarrena, Alzueta. ||

pelketan aurrena Astiazaran izan zen; bigarrena, Bereziartua; hirugarrena, Herrerua; eta laugarrena, Barkaiztegi. 25 urte hauetako erregularitate saria ere eman zuten: aurrenekoa, Herrerua izan da; bigarrena, Barkaiztegi; hirugarrena; Rufino eta laugarrena, Alzueta. ||

❖ AURREKONTUAK

Udal Aurrekontuak osatzeko bilera asteartean

Hasi dira 2009 Udal Aurrekontuak osatzeko batzarrak. Hurrengo bilera asteartean izango da, hilaren 30ean. Bertan kirola, zerbitzuak eta hirigintza sailekin lotutako ekarpenak jaso nahi ditu Udalak. Arratsaldeko 19:30etan, Biteri kultur etxean. Hurrengo bilera urriaren 8an izango da eta bertan proposamenak aztertuko dira. ||

❖ OSIÑAGA AUZOA

Arriatsuko bazkaria urriaren 19an egingo dute

Osiñaga auzoan urtero bazkaria egiten dute Arriatsun. Berez urriko bigarren asteburuan zuten egitekoa, baina atzeratu egin dute. Jakinarazi dutenez, urriaren 19an egingo dute. Izena emateko honako telefono zenbaki honetara deitu behar da: 652 758 952 (Arantxa). ||

❖ HELDUEN HEZKUNTZA ZENTROA

Ordenadore gela eta liburutegia herritarren eskura

Helduen Hezkuntza Zentroan (EPAn), ordenadore gela eta liburutegia zabalduko dituzte herritarrentzat, asteleheneetik aurrera. Zerbitzua debalde da eta adin nagusikoek erabili dezakete. 12 ordenadore, liburuak, programa

ezberdinak ikasteko autoikaskuntza materiala eta interneten nabigatu ahal izateko Wi-Fi gunea dira zerbitzuetako batzuk. Zerbitzua erabiltzeko bertara joan eta erabiltzaile txartela eskuratu besterik ez da egin behar. Helduen Hezkuntza Zentroa, Antziolako 62 zenbakian dago. Orduetgia: asteleheneetik ostiralera, goizeko 11:30etatik 13:30etara eta arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara. Informazio gehiago: 943 33 53 18. ||

❖ HERNANI INSTITUTUA

Gabonak bitartean izango diren ikastaroen eskaintza

Hernani Institutuan ikastaro ezberdinetan izena emateko aukera dago. Ikastaroak Gabonak bitartekoak izango dira. Alde batetik Goi Mailako Zikloetarako sarbide froga prestatzeko ikastaroa dago aukeran, baita Instalatzailerik elektriko karneta ateratzeko ikastaroa ere. Lanean dabilzantzeko beste ikastaro hauek daude aukeran: CAD 2 D Autocad 2007; Mekanizazio teknikak; Krokisazioa; CAD 3 D Modelaketa eta planoak; Etxeko montajeak. Korrante eramailak; Automatismo elektrikoak; Instalatzailerik elektriko karneta eskuratzeko kurtsoa; Etxebizitzetako instalatzailerik elektriko karneta eskuratzeko kurtsoa; Montaje domotikoak. Bus EIB; eta Programatu daitezkeen oinarriko automatismoak. Langabetuek ere ikasteko aukera izango dute Hernani Institutuan, izan ere, Mekanizatu ikastaroan antolatuta dute. Ikastaroa bukatzen praktikak egiten dira enpresetan.

Matrikula irailaren 30, asteartea, aurretik egin behar da. Informazio gehiago: 943 551 188 edo www.hernanibhi.com. ||

❖ PORTU AUZOA

Portuko plazaren 50 urteurrena

Portuko Plazak, Javier Ibarrolaburu plazak, 50 urte beteko ditu urriaren 12an. Beste hainbat ekitaldiren artean bazkari herrikoia izango da, parte hartu nahi duten guzientzako. Bazkarirako txartelak salgai daude: Pedro Mari tabernan eta Agustinarren dendan. Txartela eskuratzeko azken eguna urriaren 7a izango da. ||

❖ ASTIGARRAGA

Korrika 16ko arropa postua gaur

Astigarragako AEK euskaltegiak jakinarazi du, gaur goizean mahaia jarriko duela Foru Plazan, gaur izango den Sagar Uzta jaialdian. Bertan, Korrika 16ko arropa salgai izango da eta AEKko ikasturte berriko informazioa ere jarriko dute. ||

'Sagar Uzta' argazki rallya gaur

Astigarragan Sagar Uzta jaialdia izango da gaur. Garai batean sagardoa nola egiten zen erakutsiko dute Foru Plazan. Jaialdi horren inguruko argazki rally digitala ere izango da, sari ederrekin. Izen ematea gaur goizeko 09:00etatik 10:00etara egin behar da, udaletxeko arkupetan ||

HERNANI ENGLISH HIZKUNTZAK
(Gure Ingelesetxea)

Rebeka D., Ibon Z., Jon I. eta Itziar A.
ZORIONAK FIRST ATERA DUZUELAKO

MATRIKULA IREKITA IRAILA OSOAN
- ORDUTEGIA: 12:00 - 13:30
18:30 - 20:00

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08
Kale Nagusia 41 - 1

KOKO'S
OINETARROAK

AZKEN ERREMATEA
denda uztera goaz.

AUKERA 15 EGUNETAN

Gudarrien Plaza, 12 HERNANI

Parcours
FRANTSES AKADEMIA

Adriani Bonsofia

2008-2009 IKASTAROAK
IZEN EMATEA ZABALIK

- GAZTELEKIZAKO, HELDUENLEKIZAKO ETA ENPRESENTZAKO IKASTAROAK
- DELF, DALF, EOI ETA BESTELAKO AZTERKETEN PRESTAKUNTZA
- TALDEKAKO IKASTAROAK ETA KLASIKO PARTIKULARIAK

Antziola, 26 - HERNANI
609 85 96 69

Parcours



**Negu honetan,
ahaztu hotza.**

**ESKAINZA
PAREGABEA**

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantziatzen da.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziario berriari haren Interes-tasa 2008rako %5,75ekoa izango da (Credigas). Gureko tarifa baduzu, edo 65 urter gortekoa baduzu, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gure gorabeherakoa da, berruko instalazio egiteko, kanderatze galdara (markaren arabera) eta 6 eradiadore (45 elementu) jarzteko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketara, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzena, Naturgas Energia Comerciuzatzena, 54Urekin hamikuntza diru egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**

Hara, ia ordubete pasa da hitz egiten hasi garenetik. Ordubete, lurrekoaz, zerukoaz, direnez eta ez direnez hizketan. Hizketarako lagun aproposa da Jose Luis Aperribai. Joan den urtean hartu

zuen Hernaniko parroko izateko ardura eta geroztik buru belarri ari da lanean. Hala ere tarte bat eduki du Hernaniri buruzko bere ikuspegia KRONIKAREN irakurleei eskaintzeko.

Jose Luis Aperribai - Hernaniko parrokoa

«Partaidetza gehiago izango duen eliza nahi dugu»

Gorka Bereziartua

Zer moduzkoa izan da ardura berrian pasa duzun aurreneko urtea?

Karguak beti ematen dik horrelako errespetu bat, presioa nabaritzen duk, baina denboraren joanean moldatzen joaten haiz. Inguruan jende ona dagoela ikusten duk; ez bakarrik eliz-girokoa, herri osokoa baizik; eta horrek erraztu egiten dizkik gauzak. Aldaketa da, ardurak heure gain hartu behar ditualako, baina hori ere aldatzen ari duk. Azken hitza beti ardura gehiago daukagunok izango diagu, baina plangintzak egiterakoan, egoerak bereizterakoan, helburuak finkatzerakoan... horietan guztietan talde moduan lan egiten ikasi nahi diagu. Horrek esan nahi dik eliza egiteko beste modu bat, behar bada: ez hain hierarkikoa. Horretarako lanean ari gara: gure artzapeztegian bi pastoral unitate osatuko dizkiagu, bertako lokalismoa kontuan hartuz. Lan talde batzuekin hasiko gaituk, egoerak ikusi, zein behar dauden, zein erronka... Partaidetza gehiago izango duen estilo bat nahi diagu.

Hierarkia nabarmenagoa al zen lehen?

Bueno, aurretik parroko izan direnek ere jendearengandik oso gertu lan egin ditek; ez dituk dorretxean gordeta egon diren apaizak: gizarteko apaizak izan dituk.

Euskal Herriko eliza desberdina al da horretan, beste lekuetakoekin konparatuta?


Guk gurea ezagutzen diagu; oportetan-eta ezagutu izan dizkiagu beste herrietako apaizak; gogoratzen nauk Palentziako meatzarien herrietako apaizez eta horiek ere oso hurbileko sentitzen dituzte hangoek. Hemen tradizioa izan duk apaiza herri giroan txertatua egotea; jaiotzez bezala daukagu hori, eta eskerrak.

Zuek herriarengana hurbiltzen zarete. Kontrakoa gertatzen al da? Hurbiltzen al da jendea elizara?

Bai, larrialdiko egoeretan adibidez. Bolada honetan asko.

Larrialdiko egoerak?

Esate baterako arazoak dituzten bikoteak, giza harremanetan problemak dituzten pertsonak... Bikote bat hausten denean arazo asko sortzen dituk: etxean nork jarraituko



AUKERA!!
Pisua salgai prezio onean

- Kortaberaz ilean
- Guztiz berria, 2008ko lehen erdian eraikitua
- Aitzarekin
- Bartzelako moduan

Informazio gehiago
616 646 660

BARALAR TABERNA

GIRO EDERRA
ETOR ZAITEZ

ZARPA KALEA 8
943 33 15 06

MAC'S KEBAB

KEBAB, OLI ASKIDA, PÜRÜM (saxulindak),
PIZZAK, ENTZALADAK, FALAFEL
eta HAINBAT PLATERA

Bertan jai edota Etxera eramaitako

Asteleheneretik igandera,
14:00etatik 01:00tera

Lansmend 17. behe
Tel.: 655 40 58 69

duen bizitzen, kanpoan geratzen denari nola lagundu... Laguntza eske etortzen diren asko etorkinak izaten dituk, eta joan-etorrian dabilzanak ere bai; azken horiek askotan ez zeukatek non etzan.

Lan gogorra horrelako egoeretan laguntzen saiatzea.

Ezintasuna ematen dik askotan. Gure lana gertu egotea, lagundu nahia eta beren larruan jartzea duk, paternalismorik gabe. Bide horretan gabiltzak, ez gauza haundiak eskaintzekotan, potentzia bat edukiko bagenu bezala; apal, modu xumean jarraipen bat egin nahi diagu.

Etorkinak aipatu dituzu lehen. Nola bizi du elizak katolikoak ez diren fededun geroz eta gehiago egotea Hernanin?

Oraindik ez diagu aurrera-pausorik eman, baina adibidez harreman ona diagu apaiz ebanjelikoekin. Hemen bertan arazo handirik ez diagu ikusten elkarren artean, ez ebanjelikoekin ezta musulmanekin ere; baina ikusten diagu mundu osoan bezala hemen elkar bideratzeko urratsak eman behar ditugula. Ari gaituk pentsatzen, gizarte laguntza eskaintzearekin batera sinesmen diferentetako jendeak biltzeko toki batzuk behar ditugula, zentzu ekumeniko batekin, eliz eta erlijio artean, bakoitzak bere sineste eta kontzientziarekin jarraituz. Baina ez diagu nahi plangintza bat egitea, aurretik errealtateaz ezagutu gabe.

Bailarako gazteen inguruko ikerketa bat egin zenuten duela bi urte. Zein ondorio atera zenituzten?

Gazteek oso nota bajua eman zioten elizari; eta elizarekin batera ikastetxei. Ez duk gauza bera, ze ikasteak lana eskatzen dik eta denok nahi izaten diagu horietatik libre geratu. Zergatik elizaren nota baju hori? Elizaren irudiarengatik: kontserbadorea, atzerakoa...

Irudi hobea du beharbada Askapenaren Teologiak. Zer iruditzen zaizu mugimendu hori?

Saiakera haundi bat izan duk, teorikoaz gain praktikoa ere bai. Batez ere Hego Amerikan eta Ertamerikan ebanjelioaren arabera argi bat ematen saiatu duk mugimendua, hango egoeratik abiatuta. Ez zaiek merke atera hori. Ondo ikusi diat. Hogeit egunez egon ninduan El Salvadorren gerra ondoren: gerrillan ibilitakoek eta gerra nozitu zutenek esaten zitean elizak eta gerrillako agintariak bazter batean utzi zituztela. Jon Sobrinok esaten zian beraiei tokatzen zitzaiela herriari bere bidean laguntzea, baita jaunaren aurrean ere. Apal-apal. Beharbada beste itxaropen batzuk bazituan liberazioa lortuko zela, baita maila politikoan ere; martirien haziak fruitua ekarriko zuela esaten huan, baina hori ez duk ikusten. Mantendu duk eliza bizi bat, baina "gatibualdiaren teologia" bat ere sortu duk ondoren, ez zelako lortu espektatibak betetzea.

Besteak beste Hernani historian zehar liburuaren egilea ere bazara...

... gero liburuan ikusi dizkiat gauza batzuk, zuzenketa batzuk egin beharra... Ez nauk historialaria, handik eta hemendik hartzen duk, presaka, eta nahi duk marko bat daukan lan bat egin...

... Ahalegindu ez izana ez dizute leporatuko behintzat. Ez du erraza izan behar Hernaniren historia biltzeko liburu bat egitea eta 50 orri ingurutan konprimitzea, ezta?

Caro Barojak Euskal Herriaren historiari buruz zuen ikuspegia gustatu izan zaidak beti, etapaz etapa historia banatzea. Nire liburu hura saioa izan huan, ikusteko, hainbat lekutatik informazioa hartuta Hernaniren historia pentsamendu horretara egokitzen ote zen. Testuinguru batean sartu nizekian hemengo datuak.


Harreman ona diagu apaiz ebanjelikoekin. Hemen bertan arazo handirik ez diagu ikusten elkarren artean, ez ebanjelikoekin ezta musulmanekin ere; baina ikusten diagu mundu osoan bezala hemen elkar bideratzeko urratsak eman behar ditugula

Instituzioen aginte itzala gainbehera etorri dela uste diat. Bakoitza bere buruaren jabe duk, baina ez ardurak hartzeko; beharbada kentzeko bai. Alde batetik libertatea ematen dik horrek, baina horrek bazekarrek insolidario izatea ere

Askapenaren Teologia saiakera haundia izan duk, teorikoaz gain praktikoa ere bai. Batez ere Hego Amerikan eta Ertamerikan ebanjelioaren arabera argi bat ematen saiatu duk mugimendua, hango egoeratik abiatuta

Ikuspuntu historikotik zertan aldatu da Hernani azkeneko urteetan?

Azpimarratuko nuke Orbeozoren itxierari buelta ematea zenbat kostatu den. Herri honen zaina izan den Urumea berriz nola industrializatu den ikusi diagu gainera. Beste aldaketa haundi bat hirigintza eta komunika-



Itzultzaile lanetan ere aritua da Aperribai. Besteak beste, Elizen Arteko Biblia euskaratzeko prozesu luzean parte hartu zuen.

zio sarearen aldetik gertatu da: Donostia bereganatzen ari zen Hernani, aisialdia, kultura eta merkataritzari esker. Ikastetxeen datuen arabera frenatu duk fenomeno hori. Ikusi beharko duk Abiadura Handiko Trenarekin ere zer gertatzen den. Politika munduan berriz, datuak hor zeudek: Andoaindik Martutenera bitartean lehengo urtean 34 preso politiko zeudean, sozialak 18; politikoetatik 29 hernaniarrak zituan eta sozialak 6. Gatazkaren eraginez hildakoen berriz, 35 dituk. Horrek zerbait esan nahi dik. Mapa politikoa ere aldatu duk ilegalizazioek ekarritako distortsioarengatik.

Eta gizarte joeretan? Asko aipatzen da individualismoa, erreferenteak galtzea...

Instituzioen aginte itzala gainbehera etorri dela uste diat. Bakoitza bere buruaren jabe duk, baina ez ardurak hartzeko; beharbada ardurak kentzeko bai. Alde batetik libertatea ematen dik horrek, baina bazekarrek insolidario izatea ere. Datu bat badago gazteen inguruan, beharbada oso eskematikoa da, edo sinplista, baina tira: gazteen sozializazio prozesua, drogak kontsumitzen hasteko adina eta abar, 1991tik 2001era bitartean 17 urtetik 15era jaitsi huan. Eta 2004an 11-13 urtera. Sartzeko adina oso azkarra duk, baina ardurak hartzeko garaia geroz eta atzerago dijoa. Borondatezko lanak egiteko eta nabaritzen duk hori: ez bakarrik instituzioak, elkarte altruistetan ere gutxiago hartzen dik parte jendeak. ||

mihia Jan dizu katuek?



ASTINDU MIHIA TA IRABAZI SARIA

ZENBAT ARKUPE DITU UDALETXEAK?

- 08-09 ikasturterako matrikula bat; zuretzat edo nahi duzunarentzat.
- Bi lagunentzako otordua ERRIOGUARDA jatetxean.



milaka hiztun berri urtero

Erantzunetarako buzolak: Kitto, Garin, Onddi, Irizar, Zumitza, Klde eta Txlln.

◆ ARETO FUTBOLA

Yone Boutiquek merezitako garaipena lortu zuen ligako lehen partiduan

Ezin hobeto eman dio hasiera denboraldiari Yone Boutiquek, aurrenekoz 2.mailan, atzo kiroldegian jokaturako partiduan 4-1 irabazi baitzuen.

Yone Boutique	4
Denak Taberna	1

BUKATU bezala eman dio hasiera denboraldi berriari Yone Boutiquek, garaipena lortuz. Azken emaitza 4-1 etxekoen alde.

Nahiz eta markagailuan atzetik hasi, 5garren minutuan gola jaso baitzuten, taldea ez zen urduri jarri eta pixkanaka-pixkanaka jokoan nagusitzen hasi zen markagailua berdintzeko asmoarekin. Baita lortu ere. Atsedendira joaterako markagailuan banakoa ikusi zitekeen.

Oso bestelakoa izan zen bigarren zatia. Mutilak konzentrazio haundiarekin atzera ziren pista eta kanpokoan gaintetik pasa ziren, 3 gol lortuz. Atzekaldean hutsik egin gabe ibili ziren bigarren zati osoan, hortaz azken



Yone Boutique taldeak primeran hasi du denboraldia.

Nahiz eta markagailuan atzetik hasi taldea ez zen urduri jarri eta pixkanaka pixkanaka golak sartu eta partidua bereganatu zuen Yone Boutiquek.

emaitza markagailuan 4-1.

Yone Boutiquek hasieratik ateratako bostekoa honako hau izan zen: Julen, David, Iban, Rober eta Iosu; ordezkoen aulkian, berriz: Paco, Igor, Luty, Asier, Javi eta Miguel. Aipatu behar da golak binaka egin zituztela jokalaria atzokoa, Pacok 2 eta Miguelek beste 2.

Hau guztia dela eta gogotsu dira taldeko jokalaria urteko lehen irteeraren aurrean, hurrengo asteburuan Pasai Donibanen jokatuko baitute Easo taldearen kontra. ||

◆ AMNISTIAREN ALDEKO FUTBITO TXAPELKETA



Goiz eta arratsalde partiduak jokatu ziren atzo Zubipen.

'Astoan bila' taldeak irabazi zuen atzo futbito txapelketa

ASTOAN Bila Hernaniko taldeak irabazi zuen atzo amnistiaren aldeko futbito txapelketa. Txapelketa egun osoan jokatu zen atzo Zubipen, eta

eguraldia lagun, jende dextente animatu zen parte hartzera. Guztira 18 bat talde osatu ziren, gutxienez 7 lagunekin osatutakoak. Inguruko herrie-

tatik etorri zenik ere izan zen, eta haur eta helduz osatutako taldeak ere osatu ziren. Eguerdian denek elkarrekin bazkaldu zuten. ||

◆ PELOTA

Gipuzkoako txapelketako partiduak gaur kiroldegiko frontoian

Gaur, igandea, Gipuzkoako txapelketako bi partidu jokatuko dira Hernaniko kiroldegian. Batetik Etxenike eta Elorza ariko dira Goierri taldearen aurka. Bestetik Arrieta eta Otaegi Erniope menderatzen saiatuko dira. Partiduak goizeko 11:00etatik aurrera izango dira kiroldegiko frontoian. ||

Aginagako torneoan Hernaniko hiru pelotari

Aginagako torneoan ere Hernaniko 3 pilotari izango dira protagonista gaur jokatuko diren finaletan. Jubeniletan, Eneko Azpitarte hernaniarrak jokatuko du, Arruti bikote duela Santxo eta Ostolaza aurkari dituztela. Seniorretan puntu-puntu dauden Iñaki Esnal eta Aitor Gorrotxategi txapela lortzen saiatuko dira Lizaso eta Pebeten kontra. 11:00etan hasita. ||



MARISOL YABEN - Euskal Herriko animalia autoktonoen argazki erakusketa.

«Animalia hauen zaintzaileengatik ez balitz animalia hauetako asko galduta leudeke»

MARISOL Yaben argazkilariak 'Bertako euskal arrazak' izeneko erakusketa jarri du Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen, Donostian. Euskal arrazakoak diren animaliak ikusi ahal izango dira erakusketan, asko galtzeko arriskuan daudenak. Urriaren 15a arte izango da aukera, 17:00etatik 21:00etara.

Nondik nora sortu zitzaizun bertako animalien inguruko argazki erakusketa egitea? Badut halako arantza bat, euskaraz ez dakidalako. Ulertu ulertzen dut, eta hitz egiten saiatzen naiz. Hori gogoan, Euskal Herriari buruzko argazki erakusketa egitea bururatu zitzaidan. Ari nintzela, Euskal Herriko animalia autoktonoen egoeraz jabetu nintzen eta horretan sakontzea interesgarria iruditu zitzaidan. Erakusketa, lehendabizi niretzako egin dut, animalien egoeraren berri jakiteko, eta gero besteentzat, haiek ere egoeraren berri izan dezaten. Erakusketan argazkiaz gain panel informatiboak ikusi ahal izango dira.

Zein dira erakusketan ikusi ahal izango diren animaliak? Guztira 26 euskal arraza daude. Erakusketan ikusi ahal izango direnak hauek: azpi gorri ahuntza, sasi ardia, betizua, pirinear arrazako behia, terrena arrazako behia, erbi txakurra, Gorbeiaiko euskal artzain txakurra, Enkarterriko villano txakurra, Euskal txerria, Enkarterriko astoa, latxa mutur beltza (ardia), karranzana mutur beltza (ardia), euskal oiloak (beltza, lepassoila, marraduna, gorria eta zilarra), euskal antzarra eta pottoka.

Zein argazki mota da erakusketan ikusi ahal izango dena? Askok erretratuak dira; animalien burua eta aurpegia ikusten da bertan. Hala ere, saiatu naiz argazki mota aldetik aniztasuna bilatzen; toma ezberdinak egiten saiatu naiz.



Marisol Yaben argazkilaria.

Gustatuko litzaidake erakusketa osatzea falta zaizkiten arrazekin, eta erakusketa hau leku batetik bestera mugitzea

Bestela erakusketa aspergarria izango litzateke. Koadroen neurria 1 metro x 0,75 cm-koa da. Guztira 21 argazki dira ikusi daitezkeenak.

Nondik barrena aritu zara argazkiak ateratzen? Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa aldetik. Eskerrak eman nahi nizkieke Bizkaiko Foru Aldundiko Mariano Gomezi eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Joxe Mari Plazaolari, haien bitartez izan baitut aukera animalien zaintzaileekin harremanetan jartzeko.

Bizkaian: Sodupen, Aulestin, Turtziozen eta Zallan. Gipuzkoan: Itziarren, Ezkio-Itsason, Idiazabalen, Beizaman eta Urbian. Eta Nafarroan, Goizuetan izan naiz.

Atzera eta aurrera ibili zara orduan. Zer ikasi duzu lan guzti horretatik? Euskal Herrian 26 arraza ditugula ikasi dut. Harrigarria da zaintzaileek animalia hauekiko duten maitasuna. Arraza hauen alde egiten ari diren lana ikaragarria da. Egiten dutena animalia hauek babesteko da, gure kulturaren alde. Esfortzu handia da animalia hauek mantentzea, arraza hauetatik, gehienetatik, ez baitute etekin ekonomikorik ateratzen. Zaintzaile hauengatik ez balitz arraza hauek galduta leudeke. Gasteizeko txatua izeneko txerri arraza, galdu egin da, esate baterako.

Erakusketa leku gehiagotan jartzeko asmorik baduzu? Gustatuko litzaidake erakusketan hau osatzea, falta zaizkidan arrazekin eta Donostiaz gain beste leku batzuetan ere jartzea: Euskal Herrian, penintsulan eta baita penintsulatik kanpo ere. Dagoeneko deitu didate leku-erakusketak. ■

X Asteko agenda

IRAIK 29, astelehena:

- **EPA:** Liburutegia eta ordenadoreak jendearen erabilpenerako Hernaniko HH ikastetxean. Astelehenetik ostiralera, 11:30etatik 13:30etara goizez eta 19:00etatik 21:00etara arratsaldean.

IRAILAK 30, asteartea:

- **Ipuin kontaketa:** *Lur Korta*. Gaztetxoentzat ipuin kontaketa, Udal liburutegian, 17:30etan 3-4 urteko umeentzat eta 18:00etan 5-7 urtekoentzat.
- **Gazte Txokoa:** *Play Station*. Arratsaldean Play Stationarekin ibiltzeko aukera.

URRIAK 1, asteazkena:

- **Tailerra:** Portun 5-12 urte bitarteko haurrentzako auzoko tailerrak hasiko dira.

URRIAK 2, osteguna:

- **Tailerrak:** Antziola eta Elizatxon 5-12 urte bitarteko haurrentzako auzoko tailerrak hasiko dira.
- **Mendiriz Mendi:** *Pico Murciara irteera*. Apuntatzeko azken eguna. Elkartearen bertan 20:00etatik 21:00etara.

URRIAK 3, ostirala:

- **Tailerra:** Zikuñagan 5-12 urte bitarteko haurrentzako auzoko tailerrak hasiko dira.
- **TELP:** *TELP ikastaroak:* Euskaraz eroso aritzeko estrategiak lantzeko ikastaroa, Biterin, arratsaldeko 17:30etatik 21:00etara.

URRIAK 4, larunbata:

- **Mendiriz Mendi:** *Pico Murciara irteera* (asteburu pasa). Atsegindegitik, arratsaldeko 14:00etan.
- **TELP:** *TELP ikastaroak.* Euskaraz eroso aritzeko estrategiak lantzeko ikastaroa, Biterin, 9:00etatik 13:30etara.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatu dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ESKERTZA

**JULIAN IRAZUSTABARRENA
ETXEBERRIA**

(MONICA URRUZOLAREN ALARGUNA)
Orain egun gutxi hil zen

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Haren seme-alabak, bilobak eta gainerako ahaideek

Hernanin, 2008ko irailaren 28an.



VI. URTEBURRINA

Miguel Larreta Amondarain

2008ko irailaren 24an hil zen

Miguel, 3 urte joan zituela
zirela gure arteko
urte berraren zainde-
ria izan zen.
Alaitasuna zandun
guztien gainetik
Miguel, haurrak beti
diren pertsonak.




TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103 ● FARMAZIAK ● Egunez: Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● Gauez: Correa Perkaztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA



GAUR Zerua ia erabat garbi. Hego ekialdeko haizea ibiliko da eta temperatura, egunean zehar, 20 °C eta 25°C artekoa izango da.



BIHAR San Miguel egunean udako eguraldia izango da. Temperatura atsegina eta hego haizea. Arratsaldean lainoak agertuko dira baina ez du euririk egingo. (euskalmet)



Mugikortasun Astearen barruan ikasleekin egin zen pleno berezia.

Herriko ikasleek proposamenak luzatu dizkiote Udalari, herrian erosoago ibiltzeko helburuarekin

Zarata, espaloiak, zebrabideak, semaforoak, aparkalekuak, garraio publikoa eta beste hainbat gairen inguruko proposamenak landu dituzte herriko ikasleek.

MUGIKORTASUN Astea izan zen joan den astean. Programaren barruan pleno berezia izan zen eta bertan herriko ikastetxe ezberdinetako LHko ikasleek proposamenak luzatu zituzten Udalari. Proposamenak mugikortasunaren ingurukoak izan dira: herriko garraio publikoari buruzkoak, bidegorri buruzkoak, espaloia eta semaforoei buruzko proposamenak, esate baterako.

Herriko ikastetxetan azken urteetan Eskola Agenda 21 izeneko egitasmoan parte hartzen ari dira. Ingurugiroa zaintzeko, eta bizimodu osasuntsua eta jasangarriago baten aldeko kontzientzia

lantzen ari dira. Azken ikasturteetan zaborraren gaia landu dute eta aurrekoetan mugikortasunarena.

Proposamenak eta erantzunak

Ikasleek proposamen ugari egin zituzten eta Alkateak erantzun egin zituen.

- Trafikoaren inguruan ikasleek adierazi zuten Laubidieta eta Urumea ikastolen inguruko trafikoa haundia dela. Alkateak erantzun zuenez, espero du saihesbide berriekin herri barruko trafikoa arintzea.

- Zenbait lekutan espaloietan zehar trainga egiten dutela adierazi zuten ikasleek.

Alkateak erantzun zuen ezin direla herriko zehar denak kendu, oxigeno iturria izateaz gain herriari bizia ematen diotelako.

- Herriko zenbait aldeetan lurra irristakorra dela ere aipatu zuten ikasleek. Horren harira Alkateak adierazi zuen, lurrari produktu kimiko bat ematen zaiola hain irristakorra ez izateko. Herri guztiari aldi berean ezin dela tratatu ere aipatu zuen.

- Bestalde, trafikoa murriztearen inguruan Alkateak aipatu zuen, Txantxillako obrak egiten direnean, Sandiusterri kale itxia izango dela eta trafikoa asko murriztuko dela. II

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEKko eskaintza

Astigarragako AEK ere matrikulazio kanpaina da eta hori dela eta Astigarragako Udalak herritarrek animatu nahi ditu euskara ikastera. Udalak jakinarazi du matrikula ordaintzeko diru laguntza jaso ahal izango dutela izena ematen dutenek, matrikularen %40 eta % 75 artean. Eskaintza zabala da Astigarraga AEKn dagoena: euskara hobetzeko taldea, ikasten hasi nahi dutenentzako taldea, autoikas-kuntza sistema, azterketak prestatzeko talde bereziak (HABE 1, 2, 3; EGA; IVAP; Irale nahiz Osakidetzakoak), eta hitz egiteko eta zalan-tzak argitzeko klase orduak. Informazio gehiago: 943 55 73 54. II

50. urteurrena
URREZKO EZTEIAK
Eleuteria
eta
Eduardo
ZORIONAK!!

IRAGARKI MERKEAK

- Haurrak zaindu edo/eta etxeko lanak egingo nituzke goizetan. Deitu: 619 129 803
- Alokairuan hartzeko pisu bila gabiltza. Bi neska euskaldun arduratsu gara. Deitu: 671 351 927.
- Magisteritzako ikaste bat behar da 3. mailako ikasle bati klaseak emateko. Deitu: 677 724 771
- Emakume euskaldun bat behar da adineko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egingeko, Amaran (ospitalen inguruan). Turmoka, goiz edo arratsaldez. Deitu: 943 55 76 26.
- Etxea salgai Kaleras auzoan. 2 gelako etxe polita, eguzkitsu eta ondo kokatuta. Deitu: 619 813 357.
- Gela baten bila nabil (300 euroko alokairua gehienez). Deitu: 696 166 110
- Taberna salgai Hernaniko kaxkoan 80m2 + almazena 80m2. Deitu: 607 914 938 / 669 977 139.
- Mugimendua jostailu. Mugimendu adierazgarrien lantegia haurrentzat. Talde txikiak, banako arreta. SASOIKO, 943 33 11 83/ 656 721 492 (Josune Goikoetxea).
- Gimnasia Kontziente bateratzailea. Ariketak hurrunkera naturalean, arnasketa, erlaxazioa, estresa nola saihestu eta nola tratatu... SASOIKO (Marieluts 4 behe). 943 33 11 83 - 656 72 14 92 (Josune Goikoetxea)
- Gimnasia Orekatua HAURDUNENTZAT. Haurdunaldia eta erditzea ondo garatzeko. Haurraren garapena osasuntsua eta zorionsua izateko. SASOIKO. Deitu 943 33 11 83 - 656 7214 92 (Josune Goikoetxea)
- BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurrelik deitu).
- Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamura, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P- 1 B).
- Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta Kuperros. Bibrazio bidezko terapiarekin egindako gorputz tratamenduak eta "vacumterapia". Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.
- Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta berbebrala, kromoterapia, drainaje limfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76
- Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetikak. Eskutu ezazu programa informatiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76
- Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia, ... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Amegar
Etxe Tresnak - Altzariak
50 urte
ZOKETA
2008an erositak egin dituen bezero guztien artean (salzari edo etxe tresnak) urte antolatuta
LCD 32" TB modeloa
zazkoteitako dugu. Zoriz on!

Philips TB - 32"
599€

ESKANTZA
FORMIKAZKO
SUKALDEETAN
Ordaintzeko erraztasunak
Finantziaketa
- 10 urtebetetako interesik gabeko -

Txirrita kalea, 13-15 Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 16 03

BIKAIN
GRINDEGI TE GOLOTEGI
Eguneroko ogia
beti bikain

Ezizte polita - Tel.: 943 550089
Pikano 12 - Tel.: 943 553141
Orkolega 19 - Tel.: 676 78 60 93
20120 Hernani